

AMAR GAUZENA

Ipuitxo au, aurtzaroan, neure amari sarritan entzuna da.

Arrezkero jakiñ det, len Persia eta oraiñ Iran esaten zaion lurraldean sortua ete dan. Laburtxoa da, baiña arretaz esan eta entzutekoa, bestela naastu leikez, bai edeslaria, ta bai entzulea. Asitzera noa.

—Tira, ume, jan ariñ, ariñ aurrean daukazun platerkada sopa ori, mutill aundia egin zaitezten.

—Ez det soparik jango!

—Ez dezula jango soparik?

—Ez.

—Makilla, etorri onera eta jo mutilla.

—Ez det joko mutillik!

—Ez dezula mutillik joko?

—Ez.

—Sua, etorri onera eta erre makilla.

—Ez det makillarik erreko!

—Ez dezula erreko makillarik?

—Ez.

—Ur, etorri onera, eta itzali sua.

—Ez det surik itzaliko!

—Ez dezula itzaliko surik?

—Ez.

—Beia, etorri onera ta edan ura.

—Ez det urik edango!

—Ez dezula edango urik?

—Ez.

—Ez pata, etorri onera eta ill beia.

—Ez det beirik illko!

—Ez dezula illko beirik?

—Ez.

—Errementari, etorri onera eta puskatu ezpatea.

—Ez det ezpatarik puskatuko!

—Ez dezula puskatuko ezpatarik?

—Ez.

—Soka, etorri onera eta lotu errementaria.

—Ez det errementaririk lotuko!

—Ez dezula lotuko errementaririk!

—Ez.

—Sagu, etorri onera eta ebaki soka.

—Ez det sokarik ebakiko!

—Ez dezula ebakiko sokarik?

—Ez.

—Katua, etorri onera eta jan sagua.

—Bai, bai, nik pozik jango det sagua. Nun da bera?

Saguak: —Zergaitik jan bear nazu ni?

—Sokarik ebaki nai ez dezulako.

—Ebakiko det soka!

Eta *sokak*: —Zer dala-ta ebaki bear nazu ni?

—Errementaria lotu nai ez dezulako.

—Lotuko dut errementaria!

Eta *errementariak*: —Zer dala-ta lotu bear nazu ni?

—Ezpatea puskatu nai ez dezulako.

—Puskatuko det ezpatea!

Eta *ezpateak*: —Zer dala-ta puskatu bear nazu ni?

—Beia ill nai ez dezulako.

—Illko dut beia!

Eta *beiak*: —Zer dala-ta ill bear nazu ni?

—Ura edan nai ez dezulako.

—Edango det ura.

Eta *urak*: —Zer dala-ta edan bear nazu ni?

—Sua itzali nai ez dezulako.

—Itzaliko det sua!

Eta *sua*: Zer dala-ta itzali bear nazu ni?

—Makilla erre nai ez dezulako.

—Erreko det makilla!

Eta *makillak*: —Zer dala-ta erre bear nazu ni?

—Mutilla jo nai ez dezulako.

—Joko det mutilla!

Eta *mutillak*: —Zer dala-ta jo bear nazu ni?

—Soparik jan nai ez dezulako.

—Jango det sopa!

Eta jan zuen sopa eta egin zan mutill andia.

ARRITOKIETA

IZKIRIMIRIAK

1.—Bi emakume beren senarren gain izketan daude.

—Ni gabe —dio batek— gure Enrrike ez litzake ezertarako gauza. Ez dakit zer egingo lukean, ni gabe aste batean egon bear ba'lu.

—Juan ere berdin-berdin dezu —zion besteak—; nik orrekin izan bear detan ardura! Begizu, botoi bat eratxi edo galtzerdiren bat konpondu bear duan bakoitzean neronek sartu bear izaten diot jost-orratza.

2.—Gauetz zai egiten dagon soldadu batek zerbait aditu-ta:

—Alto! Zein da? —bulartsu ots egiten du.

—Ire lagun bat bonbil (hotella) batekin.

—Aurrera laguna, baiñan... geldi emen bonbilla!

3.—Nere emaztea baiñan miragarrigorik alajaña, etzegok eguzkipean, noski —dio arrokeriz antuta adixkide batek besteari—. Bein igeri egiteko praka zar batekin, bi galtzerdi motz egin zizkidaken; eta oraiñ galtzerdi aicako batekin, berarentzat igeri egiteko jantzia egiten ari dek.

4.—Zoritxarra guztiok eraman deza-kegu, baiño gizon baten izakera eza-

gutu nai ba'dezu, eman zaiozu almena.

Bein erromerian, etorri berria zan emakume arrotz batekin izketan negon.

—Ez dakit zer gerta zaion auzko gizaseme ari —esan nion—. Lentxoago oso pozik nerekin izketan zegon eta oraiñ ez dit ez begiratzen ere.

—Bear bada, ni etortzen ikusiko nindun eta... —erantzun zidan andreak, —nere senarra baita.

5.—Zure lantokitik langilleren bat bialdu nai al dezu? Nere aitak bezela egin.

—Adi zak, Joxe, etorri! —esan zion bein bati—. I gabe etzekiat zer egingo genduken guk lantegian, baiño astelenetik aurrera ikusi nai diat.

—Eta iñork etzuan zer erantzunik izaten, ain pozik geratzen ziran.

1.º Egiten duanari, ordaintzen zio; egiteko agintzen duanak ez du beraren bearrik; eta bear duanak ez du ikusten. Zer da?

2.º Aokada bat ogi baiño aundiagoa, ta onen gozo bera duana zer da...?

Erantzunak:

Bigarrenari: Ogi osoa.

Lenengoari: II-kutxa.

Mitxelena